

Epaitegien nahiz Auzitegien funtzionamenduari dagozkion Kexak eta Salaketak Izapidetzeari buruzko abenduaren 2ko 1/1998 zenbakidun ARAUDIA.¹

I

Epaitegien zein Auzitegien ikuskaritza eta kexak nahiz salaketen izapideari dagokionez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak dauka erregelamenduak egiteko ahala, Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren 110. artikuluko m) atalean ezarritakoaren arabera, azaroaren 8ko 16/1994 Lege Organikoari jarraiki aipatutako manuak duen erredakzioan. Azken alderdiaren araubidea herritarri arreta emateko zerbitzuak ezartzeko beharrezkoak datza; horrela, egoki deritzen erreklamazioak eta kexak modu eraginkorrean aurkeztu ahal izango ditu. Halaber, zerbitzu hobea eman nahi da ekimenen nahiz iradokizunen bidez, botereetan nahiz herri administrazioetan hazi den kezkari erantzunez. Justizia Administrazioan, beharizan hori jurisdikzioaren ahala betearaztetik eratortzen diren ezaugarri berezien arabera bete behar da, Botere Judizialaren Lege Organikoak ezarritakoari jarraiki. Era berean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak erregelamenduak egiteko duen ahala hala nola Justizia Administrazioaren kudeaketarako eskumenak egoteko ordena konstituzionala ere kontuan hartu behar dira.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusi honen 1997ko irailaren 8ko Batzarrean onetsitako Justiziaren Liburu Zurian herritarrek aurkeztutako kexei eta jakinarazteko eginbideei tratamendu berria eman behar zaiela adierazten da. Halaber, gobernu eta jurisdikzio organo desberdinen aurrean herritarrek informazioa eskatzeko edo kexak nahiz erreklamazioak azaltzeko duten eskubidea aipatzen da. Liburu Zuriak berak gogorarazten duenez, jarduera- eta zerbitzu-mota hauen erregulazioa Herri Administrazioaren alor desberdinetan jorratu da oraintsu. Hala egin da honako manuen bidez: Administrazioaren Informazio Zerbitzuak sortzeari buruzko otsailaren 9ko 208/1996 Errege Dekretua, Zergaduna Babesteko Kontseilua eratzeari buruzko abenduaren 2ko 2458/1996 Errege Dekretua, hala nola Estatuaren Administrazio Orokorren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legean (4. artikulua) eta Zergadunen Eskubideak eta Bermeak arautzeko otsailaren 26ko 1/1998 Legea ere.

Kontseilu Nagusiaren Osoko bilkurak, 1998ko maiatzaren 6an egindako bileran, honako erabakia hartu zuen: Kontseilu Nagusi beraren Azterketa eta Txosten Batzordeari dagokion arauzko testua prestatzeko izapideak hasteko eskumena esleitzea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 110. Artikuluen m) ataleko amaierako aipamenak diotenaren arabera.

Bere aldetik, Azterketa eta Txostenen Batzordeak, beharrezko aurrekariak eskatu ondoren, Ikuskaritza Zerbitzuaren zenbait txosten barne, proiektuaren hasierako testua prestatu zuen. Batzordeak 1998ko irailaren 8an egindako bileran onartu zuen, aldi berean txostenen eta entzunaldien epea irekiz, aipatu Botere Judizialaren Lege Organikoaren 110. artikulua aurreikusi duenaren arabera.

Jendeaurrean jakinarazteko eta alegazioak aurkezteko izapideari ahalik eta zabalkunde handiena eman nahi izan zaio, ahal den beste elementu ezagutzea lortzeko eta arauaren egokitasuna zein eragikortasuna indartzeko.

Horregatik, legeak diotenaren arabera, Epaille eta Magistratuen elkargo profesionaletako eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 110.3 artikulua aipatzen dituen bestelako elkargo profesionaletako txostenak, hala nola Estatuaren eta Justizia alorreko eskumenak dauzkaten Autonomia Elkargoetako Administrazioaren esku-hartzea eta Ministerio Fiskalaren txostena ere eskatu da. Aurrekoaz gain, dagozkion gobernu organoen bitartez, honako hauei ere jakinarazi zaie: Tribunal Gorena, Audientzia Nazionala, Justiziako Tribunal Gorenak, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 166.1 artikulua aipaturiko Epaitegieta Dekanotzak, eta Karrera Fiskaleko zein Idazkari Judizialeko elkarte profesionalak.

¹ BOEren 25. zenbakian argitaratua (1999-01-29).

II

Txostena jaso duen testuaren bidez Botere Judizialaren Lege Organikoaren 110.1 artikuluko m) atalaren arauzko garapena egin nahi da. Horrela, araudian gaur egun ematen den hutsunea bete eta Justizia Administrazioaren alorrean, gainerako administrazio eta herri erakundeetan bezala, herritarrari arreta emateko prozedura eraginkorrak sortzen dira bere erreklamazioak egiterakoan. Halaber, Justizia Administrazioarekiko harremanetan sortu litezkeen arazoak konpontzeko moduko informazioa lortu daiteke aldez aurretik, kexari aurrea hartuz edo kexa bera ekidinez edo, hala badagokio, erreklamazioa azaltzeko eta organo judizialen funtzionamenduari buruzko ekimenak edo iradokizunak adierazteko behar dena ezagutzeko. Hori guztia bigarren mailako izaera laguntzailea duen araudiaren bitartez egin da, Botere Judizialaren Lege Organikoaren maniak garatuz eta horiei estuki lotuz, bai Botere Judizialaren gobernu-organoen jarduerari dagokionez, bai gai honetan alor bakoitzeko jurisdikzio-organoeekin dauzkan harremanetan. Proiektuaren informazio publikoko epeak iraun duen bitartean herritarrari arreta emateko zerbitzu osatuagoak eta hobetuak sortzearen aldeko iritzia nagusia dela egiaztatu bada ere, Justizia Administrazioaren eraginkortasuna handitzeko eta herritarrek eta iritzi publikoak horretan duten konfidantza indartze aldera, arauzko eduki minimo baten aldeko hautua egin da. Horretarako, legeak ezarritako mugak eta arauketa honen aurkezpenak dakarren berrikuntza kontuan hartu dira. Honenbestez, etorkizunean zerbitzuaren erabiltzaileei emandako arreta integrala hobetu eta osatuko da, batik bat, Botere Judizialaren Lege Organikoko 272. artikuluan aurreikusi diren zerbitzu orokorrak garatzearen bitartez. Bestetik, honako Arauketan Epaitegien zein Auzitegien funtzionamenduari buruzko kexa eta salaketak izapidetzeko nahiz ebazteko prozedurak ezarri dira, betiere beren jurisdikzio-organoen aurrean aurkezten badira. Halaber, beste bide instituzionalak erabiliz adierazitako kexak edo salaketak izapidetzeko ildo espezifikokoak daude, esate baterako, Espainiar Konstituzioaren 29. artikuluan jasotako eskariak egiteko eskubidea edo, Justizia Administrazioari dagokionez, Herriaren Defentsariari buruzko 3/1981 Lege Organikoan nahiz 1983ko apirilaren 6ko bere Antolakuntza- eta Jarduera-Araudian (25. artikulua) ezarritakoak.

III

Araudiaren testuan "Xedapen Orokorrak" izenburupeko testu bat dago. Bertan, banatutako artikuluen bidez, honako arloak arautzen dira: manuaren xedea eta gaiaren eremua, Epaitegi eta Auzitegietako Presidenteeek nahiz Dekanoek gaiari buruz dituzten eskumenak hala nola Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren funtzioak ere. Horrela, kexak eta erreklamazioak aurkezteko prozesua eraginkortasun handiagoaz gauzatu daiteke. Halaber, gobernu-organoen eta bulego judizialen esku jarritako material informatiboak eta eskabideak jasotzen dira.

Izapidetzeko arau orokorrei buruzko II atalburuan, lehendabizi, interesdunei aldez aurretik emandako informazioa arautzen da, Botere Judizialaren Lege Organikoaren manuei eta jardun judizialen alderdi osagarrien erregelamenduzko araudiari eutsiz eta jardunen sekretuari buruzko xedapen prozesaleatik edo datu pertsonalak babesteko eskakizunetatik eratoritzen diren nahitaezko erreserbekin. Testuaren barruan informazio orokorra eta izaera espezifikoa duena bereizten dira, gai honetan orokorrean onartutako irizpideei jarraituz, otsailaren 9ko 208/1996 Errege Dekretuaren 2. eta 3. artikuluetan dagoen arauketak agerian uzten duenez. Horren bitartez, informazio administratiboko eta herritarren arretarako zerbitzuak sortzen dira, jurisdikzio-organoen eta gobernu-organoen izaera zein arauketa desberdinetatik eratorritako eskakizunei estuki eutsiz. Zehatz-mehatz, prozedura jakin baten izapideak duen egoeraz interesa dutenei emandako informazioari dagokionean, Botere Judizialaren Lege Organikoaren arauak kontuan hartuko dira. Jarraian, gobernu-organoeetan edo organo judizialean bertan interesdunen kexak, salaketak edo iradokizunak aurkezteko aukera ezarri da, ahal den bezain zabalki, kexaren iturria den bidegabekeria potentzialaren egoerari behar ez diren molestiak eta bidaiak gehitzea ekiditeko asmoz. Ondoren, laburbildurik, eskabideak izapidetzeko prozedura arautzen da, ekimenak eta iradokizunak, kexak edo salaketak bereiztuz. Interesdunei hartu izanaren berri emateko betebeharra ezarri da, beren eskabidea jaso beharko lukeen izapidea eta hartuko duen organoa jakinaraziz.

Amaieran, dagozkion xedapenen bitartez, herritarrari arreta emateko zerbitzu orokorrak ezartzeko aukera jasotzen da, Botere Judizialaren Lege Organikoko 272. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrela egitekotan, Justizia Ministerioak edo, hala badagokio, gai honetan eskudunak diren Autonomia Elkarteek zerbitzu horien egitura zehaztuko dute.

Halaber, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren apirilaren 22ko 1/1986 Akordioa gehitu da. Horren bidez, Kontseilu Nagusi beraren Antolakuntza- eta Jarduera-Araudia onartzen da, Herritarraren Arreta-Unitateko Ikuskaritza Zerbitzuaren barruan eratuta. Horrela, zerbitzuen funtzionamendua koordinatzeaz gain, arauzko testu honetan aurreikusitako jardunei dagozkien datuak zentralizatzen dira. Era berean, testuak egiteko prozedura eta interesdunek erabili beharreko eskabideak ezarri dira. Halaber, 1995.eko ekainaren 7ko Akordioaren 2.2 artikuluan xedatutakoa betetzen da, hots, indarrean dauden araei buruzko koadro eguneratua argitaratzen da eta, azkenik, araudia Estatuaren Aldizkaria Ofizialean (BOE) agertzen deneko egunean indarrean sartuko da.

Honenbestez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, data honetako bileran, honako Araudia onartzea adostu du:

I ATALBURUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Helburua.

Honako Araudiaren helburua Epaitegi nahiz Auzitegien jarduerari buruz herritarrek jarritako kexen eta salaketan izapidea hala nola herritarrari alde aurretik emandako informazioa zein arreta ere arautzea da, Botere Judizialaren Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (110. artikulua; 2. zenbakia; m) atala).

2. artikulua. Epaitegi zein Auzitegietakoko Presidenteentzako eta Epaile Dekanoentzako eskumenak.

1. Epaitegi eta Auzitegietakoko Presidenteentzako ardura da auzietan interesdunek egiten dizkieten kexak entzutea. Horretarako, behar diren prebentzioak hartuko dituzte beren eskumenen barruan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160. eta 162. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2. Era berean, Epaile Dekanoek eta, horiek ez daudenean, Epaile bakarrek prozedura desberdinetan interesdunek adierazitako kexei arreta emango diete. Bide horretan, behar diren neurriak hartuko dituzte, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 168. Artikuluan ezarritakoari jarraiki.

3. artikulua. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren funtzioak.

1. Kexak eta salaketak izapidetzeko jarduerak eta herritarrari emandako informazioa antolatzea Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari dagokio, Epaitegi eta Auzitegi guztien ikuskaritza eta zaintza nagusia gauzatzeko funtzioari jarraiki, Justizia Administrazioaren jarduera egiaztatzeko eta kontrolatzeko Botere Judizialaren Lege Organikoko 171. artikulua emandakoa.

2. Aurreko pasarteetan xedaturikoa eragikorra izateko Kontseilu Nagusiak dagozkion material informatiboak, eskabideak eta zerbitzurako nahiz kexak eta salaketak izapidetzeko protokoloak sortuko ditu, Araudi honetan eta Botere Judizialaren Lege Organikoan ezarritakoari eutsiz.

3. Hala sorturiko eskabideak beti egongo dira interesdunen esku. Horietan, beren beregi adieraziko denaren arabera, kexa edo errekurtsioa jartzeak ez ditu eteten interesdunari lagundu diezaiokkeen edozein errekurtsio, ekintza edo eskubide gauzatzeko legeetan ezarritako epeak.

4. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak gobernu-organo nahiz bulego judizial guztien esku jarriko ditu aipatu eskabideak eta material informatiboak, hala eskatzen duten interesdunei horiek igorri.

II ATALBURUA

Izapidetzeko arau orokorrak

4. artikulua. Interesdunei emandako informazioa.

1. Kexa edo salaketa aurkeztu baino lehen, informazio generikoa eskatu daiteke Epaitegia edo Auzitegiaren osaera, eskumenak eta arauketa organikoari buruz. Halaber, prozesu edo izapide jakin baten ezaugarriak ere ezagutu daitezke. Emandako informazio horrek ez du eraginik izan behar Epaitegiei eta Auzitegiei berez dagokien jurisdikzio-ahalaren edukian, Espainiar Konstituzioaren 117. artikuluan ezarritakoaren arabera. Era berean, aipatu informazioak ez du Zuzenbideko eskudun profesionalen aholkularitza juridikoaren, ordezkartzaren eta defentsaren funtzioetan eraginik izango, beraiei prozesuan legez egotzitakoak.

2. Halaber, interesdunek eskaturik eta Botere Judizialaren Lege Organikoko 234. artikuluan ezarri bezala, Presidentziek eta Dekanotzek jurisdikzio-organismoaren titularrari jardun jakinen izapideak aurkezten duen egoerari buruzko informazioa eskatu ahal izango diote. Horretarako, Epaitegi eta Auzitegietan dagoen Idazkariak edo eskudun langileak baliatuko dira. Hala ere, Jardun Judizialen Alderdi Osagarriari buruzko ekainaren 7ko 5/1995 zenbakidun araudiaren 5. artikuluan xedaturikoaren arabera, horrela lorturiko informazioa ezin da izan Legeak isilpekotzat jotako jardunei buruzkoa, edo pertsonen ohoreari, intimitateari edo irudi propioari dagokiona.

5. artikulua. Kexak eta salaketak aurkeztea.

1. Interesdunek beren kexak eta salaketak hala nola oro har Epaitegi zein Auzitegiei buruzko beren ekimenak eta iradokizunak ere Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian aurkeztu ahal izango dituzte, honako araudiaren 2. artikulua aipaturiko edozein organotan edo jurisdikzio-organismoan bertan. Horretarako, idazki bat erabiliko dute, interesdunaren identifikazioa, kexa edo salaketaren arrazoiak, zuzentzen den organoa eta dagozkion jurisdikzio-organoa eta prozedura adieraziz. Aurkezpena organoaren erregistroan egin daiteke, egintza horretan egiaztagiria edo zigilaturiko kopia jasoz, Administrazio Publikoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Bateratuaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 zenbakidun artikuluan adierazitako bulegoetariko edozeinetan, edo Botere Judizialaren Lege Organikoaren 230.4 zenbakidun artikuluan aipaturiko baliabide teknikoak erabiliz.

2. Dagozkion eskabideak jurisdikzio-organismo bakoitzaren idazkaritzan, toki ikusterrazean eta behar den bezala adierazita, jarriko dira interesdunen esku, horiek aukeran erabili ditzaten. Halaber, aurretiko informazio-eskabideak bertan hartuko dira. Organo judizial bat baino gehiagoren egoitza diren tokietan jarduera hori bulego jakin batean zentralizatzeko aukera dago.

3. Aipatu idazkiak, behin aurkeztuta, Dekanotzara igorriko dira, bertan izapidetu eta ebatzi ditzaten, Epaitegia izatekotan, eta Auzitegiko zein Audientziako Presidentziara, kideuriko organoa denean. Hori guztia, ondorengo berrogeita zortzi orduetan egin behar da, kopia bat gordez dagozkion liburuari gehitzeko eta beste bat Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira bidaltzeko esandako epe berean, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 423.2 artikuluan ezarritakoari eutsiz, hori guztia erreklamazioa edo iradokizunaren iturburua litezkeen anomaliak konpontze aldera beharrezko neurriak hartzea baztertu gabe, erreklamazioa edo iradokizuna ondo oinarrituta dagoenean eta, betiere, organo jasotzailearen eskumenen baitan. Ebazpena lehenbailehen emango da eta, edonola ere, horri buruz ebatzi behar duen organoak jasotzen duenetik hilabeteko epean.

6. artikulua. Ekimenak, iradokizunak, kexak eta salaketak izapidetzea.

1. Idazkian ekimena edo iradokizuna azaltzen denean, eta ondo oinarrituta egotekotan, berari arreta emateko beharrezko neurriak hartuko dira, organoaren eskumenen barruan. Bestela, ekimena edo iradokizuna eskudun organoak uste duenaren ebatziko da, bere hedadura eta izan dezakeen jatorriari buruzko azalpen labur batez lagunduta, hala badagokio.

2. Idazkian kexa bat adierazten denean, eduki dezakeen oinarria zehazteari ekin behar zaio. Horretarako, dagozkion aurrekariak eta txostenak eskatuko dira, hala behar izatekotan. Jarraian, beharrezko neurriak hartuko dira horren jatorria diren anomaliak edo egoerak konpontzeko, diharduen organoak dauzkan

eskumenen barruan, edo jurisdikzio-organoari dagozkion neurriak hartzea eskatuko zaio, betiere Epaitegiak edo Auzitegiak jurisdikzio horretan duen ahalari estuki eutsiz.

3. Aurkezturiko idazkian diziplinazko arau-haustea osatu dezaketen egitateak agerian uzten direnean, edo egindako jardunetatik egon litezkeen izaera bereko erantzukizunak ondorioztatzen direnean, dagokion diziplina-prozedurari ekingo zaio, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 423.1 artikuluan adierazitakoaren arabera. Izan litezkeen arau-haustea ezagutzeko eskumena Botere Judizialaren gobernu-organoei ez dagokienean, salaketa dagokion administrazio, organo edo elkargo profesionalari igorriko zaio, aldi berean horiengandik dagokion ebazpena jakinaraztea eskatuz.

4. Bere aldetik, Ikuskaritza Zerbitzuak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari organo judizialen jarduerari buruz zuzendutako salaketak, kexak eta erreklamazioak jaso eta egiaztatuko ditu, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Antolakuntza eta Jarduerari buruzko 1/1986 Araudian ezarritakoaren arabera.

7. artikulua. Hartu izanaren berri ematea.

Auziaz arduratu behar duen organoak idazkia jaso ondorengo berrogeita zortzi orduko epearen barruan, interesdunari hartu-agiria bidaliko zaio. Bertan, Araudi honen 3.3 artikulua azken iruzkinak aipatutako adierazpena ezinbestean jasoko du, erreklamazioa ebazteaz arduratuko den organoa eta horretarako ezarri den izapidea jakinaraziz.

8. artikulua. Akordioak jakinaraztea eta helaraztea.

1. Dagokion ebazpena interesdunari helaraziko zaio, honek une orotan bere kexaren edo salaketaren izapideak duen egoeraren berri edukitzeko eskubidea daukalarik.

2. Kexaz edo salaketaz ebatzi behar duen organoak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuari hartutako ebazpen desberdinen kopia igorriko dio, estatistikarako eta dagozkion gainerako ondoretarako.

Lehenengo xedapen gehigarria. Herritarraren Arreta-Unitatea²

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Antolakuntza eta Jarduerari buruzko 1/1986 Araudia onartzen duen 1986ko apirilaren 22ko Akordioaren 118. artikuluari 4 zenbakia gehitu zaio, honako testuaz: "4. Herritarraren Arreta-Unitatea".

2. 1/1986 Akordioari honako testua gehitu zaio, 122. artikulua gisa: 122 bis artikulua. Herritarraren Arreta-Unitateari dagokio kexak nahiz salaketak jasotzeko eta herritarrari arreta emateko zein informatzeko zerbitzuen jarduera koordinatzea, Araudi honetan ezarritakoaren arabera...".

Bigarren xedapen gehigarria. Informatzeko agiriak, eskabideak eta zerbitzu-protokoloak

Bi hilabeteko epean honako Araudia argitaratzen denetik hasita, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak dagozkion informazio-dokumentuak, eskabideak eta kexak nahiz erreklamazioak izapidetzeko protokoloak onartzeari ekingo dio. Kexak eta erreklamazioak izapidetzeko hala nola herritarrari aurretiaz informazioa emateko erabiliko dira, dagokion instrukzio orokorraren bidez, "Estatuaren Aldizkari Ofizialean" (BOE) argitaratua izango delarik.

Hirugarren xedapen gehigarria. Herritarraren arreta-zerbitzu bateratuak.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 272. Artikulua 1 zenbakian aurreikusitakoari eutsiz, eta manu horretan ezarritako baldintzen arabera, herritarrari arreta emateko dagozkion zerbitzu bateratuak ezarri ahalko dira. Horrela, Justizia Ministerioak eta, hala dagokionean, gai honetan eskudun diren Autonomia Erkidegoek ere, egitura, plantillak eta manua 4. zenbakiak aipaturiko gainerako alderdiak zehaztuko dituzte. Esandako zerbitzu bateratuen barruan sartuko dira kexak nahiz erreklamazioak jasotzeko eta herritarrari informazioa zein arreta emateko zerbitzuak, horiek sortzeko akordioari jarraiki. Horrek ez ditu mugatzen Botere Judizialaren Lege Organikoak Epaitegi eta Auzitegiak Presidenteei hala nola Epaila

² Erantsitako manuen testua ikusteko: obra honen 3. §.

Dekanoei egotzitako ahalak, honako Araudiak aipatzen dituen gaiei dagokienean. Halaber, orientabide juridikorako zerbitzuek dauzkaten funtzioak ere gordeko dira horiek ezarrita dauden lekuetan. ³

Laugarren xedapen gehigarria. Indarrean dauden erregelamenduzko xedapenen koadroa.

*Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Osoko Bilkuraren 1995. urteko ekainaren 7ko Akordioaren 2.2 artikulua Karrera Judiziala, Eskola Judiziala, Bake-Epaileak, Epaitegietako Gobernu-Organok eta Jardun Judiziala Alderdi Osagarrien Erregelamenduak onartzen ditu. Bertan ezarritakoari eutsiz, erregelamenduari buruzko Akordioaren eranskin gisa, indarreko Erregelamenduen koadro eguneratua jarri da, onartu berriak diren arauekin eta aurrekoen aldaketekin.*³

Xedapen indargabetzailea.

Erregelamendu honetan ezarritakoaren aurka azaltzen diren xedapenak indargabeturik daude, betiere azken hauen arau-lerruna berdina edo murriztagoa denean.

Xedapen gehigarria. Indarrean sartzea.

Honako Erregelamendua "Estatuko Aldizkari Ofizialean" (BOE) argitaratzen den egunean indarrean sartuko da.

³ *Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko 1999ko apirilaren 14ko Akordioaren xedapen gehigarri bakarrak Jardun Judizialen Alderdi Osagarrien ekainaren 7ko 5/1995 Erregelamendua aldatzen du. Bertan ezarritakoaren arabera, VII Titulua gehitu da "Zerbitzu Bateratuei buruzkoa" izendapenarekin, obra honen 26.6 artikuluan jasotzen delarik. Aipaturiko VII Tituluan xedatutakoa Araudi honetan ere ezarri daiteke, batik bat, Administrazioari eta Botere Judizialari lotutako Zerbitzu Bateratuak sortzeko hurrenez hurrenko eskumenak aipatzen dituzten alderdiak, bere aplikazio-eremua aipatu Araudian jasotakoaren barruan baitago, azken hau zabalagoa izanik.*